

2017KO AZAROKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira. Ordu bat gehitu ordu ofiziala kalkulatzeko)
Poloetan kokatutako edozein punturen batazbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h
Ekuadorean kokatutako edozein punturen batazbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h
Donostian kokatutako edozein punturen batazbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

-Begi hutsez:

-Hilaren 2an, 02:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 9an, 16an, 23an eta 30an izango dira beste maximoak.

- Hilaren 2an, 08:00an, Perseoko Algol izar aldakorraren distira minimoa. Magnitudea 3,3tik gertu. Hilaren 5an, 8an, 10an, 13an, 16an, 19an, 22an, 25an eta 28an izango dira.

-Hilaren 3an, 12:00etan, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 8an, 14an, 19an, 24an eta 30an izango dira beste maximoak.

- Prismatiko edo Teleskopioarekin:

-Hilaren 22an, Jupiterren lau ilargi Galileatarrak ikus daitezke berezko ordenean planetaren ekialdean: Io, Europa, Ganimedes eta Calisto.

ILARGIA AZAROAN

01 librazio minimoa longitudean ($l = -6,6^\circ$). Aristarco eta Herodoto kraterak ikusteko egoera aipatzen.
03 03:02tan, konjuntzio geozentrikoan Uranorekin, 4^{ra}. Ilargiaren argitasunak, planeta ikustea galarazten du.

04 05:23tan, Ilbetea.

05 10:39tan, konjuntzio geozentrikoan Pleyadeekin, 9^{ra}.

06 00:10tan, Perigeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 361.438Km (aurreko apogeoan baino 43.716 km gutxiago).

06 02:32tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, 0,8^{ra}.

10 20:36tan, Ilbehera.

10 22:40tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

11 16:49tan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 0,4^{ra}.

13 librazio maximoa longitudean ($l = 6,4^\circ$). Grimaldi kratera behatzeko aukera egokia.

15 03:09tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 3^{ra}.

15 20:57an, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 6,6^{ra}.

17 00:02tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 3,9^{ra}.

17 08:17tan, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, 3,8^{ra}.

18 11:42tan, Ilberria.

21 00:26tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 3^{ra}.

21 18:53tan, Apogotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 406.132 Km. (aurreko perigeoan baino 44.694 km gehiago).

25 08:22tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

26 17:03tan, Ilgora.

27 06:08tan, konjuntzio geozentrikoan Neptunorekin, 1,1^{ra}.

28 librazio minimoa longitudean ($l = -7,6^\circ$). Eurien itsasoa behatzeko egoera ezin hobea.

PLANETAK IRAILEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (15tik Aurrera ikusiko dugu, arratsadaldearen amaieran) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Zailtasunez ikusi ahal izango da hego-mendebaldeko zeruertz gainean, eguzkia sartu eta 40 minutura.

Elingazio maximoa hilaren 24an izango da. Igoera zuzena 15h eta 18h artean, deklinazioa -20° eta -25° bitarte. Hilabetea Libran hasiko da, Escorpio, Ofiuco pasa, eta Sagitarion amaitu. Magnitudea $-0,5$ tik $0,5$ ra jetsiko da.

Hilaren 28an Saturnoren ondoan aurkituko dugu.

Artizarra (Gauaren amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Ekialde hego-ekialdeko zeruertzetik azalduko da, eguzkia atera baino ordu t'erdi lehenago hilaren 1an, eta 50 minutu lehenago hilaren 30an. Igoera zuzena 13h eta 15h artean, deklinazioa -7° eta -19° bitarte. Hilabetea Virgon hasi eta Librara egingo du salto. Magnitudea $-4,0$ tik $-3,9$ ra jestiko da.

Hilaren 13an Jupiterren ondoan aurkituko dugu.

Marte (Gauaren amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Eguzkia baino hiru ordu lehenago azalduko da hilaren 1an, eta ia lau ordu lehenago hilaren 30an. Itxurazko diametroa ez da $4''$ ra iristen eta ondorioz ez da behaketarako aukera aproposik emango. Igoera zuzena 12h eta 13h artean, deklinazioa -2° eta -8° bitarte. Hilabete osoa Virgon. Magnitudea apur igoko da, $2,1$ tik $2,0$ ra.

Hilaren 29an Virgoko Spica izarraren ondoan aurkituko dugu.

Jupiter (hilaren 10tik Aurrera ikusiko dugu, gauaren amaieran) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Hilaren 13an eguzkia baino ordu bat lehenago azalduko da ekialde hego-ekialdeko zeruertzetik, eta Artizarren ondoan aurkitu dezakegu. Hilaren 30an eguzkia baino bi ordu t'erdi lehenago azalduko da. Igoera zuzena 14, deklinazioa -13° eta -14° artean. Hilabete Virgon hasiko du, baina Librara pasako da. $-1,7$ ko magnitudea mantenduko du.

Saturno (gau hasieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Eguzkia sartu eta bi ordu t'erdi beranduago ezkutatu da hilaren 1an, eta ordu t'erdi beranduago hilaren 30an. Aurtengo behaketarako lehioa itxi egiten ari da. Igoera zuzena 17h, deklinazioa -22° . Hilabetea Ofiucon hasi eta Sagitarion amitu da. Magnitudea $0,5$ an mantenduko da.

Hilaren 28an Merkurioaren ondoan aurkituko dugu.

Urano (ia gau osoan ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Gauaren hasieran meridiano gurutzatu du zeruertzetik 50° ra. Egoera atmosferiko egoki batekin, begi hutsez ikus daiteke. Ez Piscis konstelazioko Omicron izarrarekin nahastu, $4,3$ magnitudekoa eta Uranotik 3° ekialdera aurkitzen dena. Igoera zuzena 1h 35m, deklinazioa 9° . Hilabete osoa Piscisen emango du. Magnitudea $5,7$ an mantenduko da.

Neptuno (ia gau osoan ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Meridianotik 35° ra pasako da, eguzkia sartu eta hiru ordu beranduago hilaren 15an eta bi ordu beranduago hilaren 30an. Hilaren 22an eretrogradazioa kiribila amaituko du. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -8° . Hilabete guztia Acuarion emango du. Magnitudea $7,9$ an mantenduko da.

AZAROKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean, igandea, eguerdian, 2.458.059. egun juliotarra hasiko da.
- Egunak 10 ordu eta 16 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 9 ordu eta 15 minutukoa hilaren 30an.
- Hilaren 3an, 12tan denboraren ekuazioak aurtengo bere bigarren maximo negatiboa gailenduko du: -16 m 26s.
- Hilaren 12an, Lurrak 21P Encke kometak utzitako lorratza zeharkatu du. 3,3 urteko periodoa duen kometa honen lorratza bitan gurutzatzen du lurrak urtean, ipar eta hego taurida izeneko izar iheskorak sortzen ditu orain, eta Beta Tauridak ekainean.
- Hilaren 17an, Lurrak 55P Tempel-Tuttle kometak utzitako lorratza zeharkatu du. 33 urteko periodoa duen Kometa honek, Leonidas bezela ezagutzen diren izar iheskorak sortzen ditu, ilberriak behaketan lagunduko du.
- Hilaren 22an, astrologiaren arabera, eguzkia Sagitario konstelazioan sartuko da (240°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.
- Hilaren 23an, 09:54tan, eguzkia itxuraz Escorpio konstelazioan sartuko da ($241,3^\circ$).
- Hilaren 28an, 21:58tan, eguzkia itxuraz Ofiuco konstelazioan sartuko da ($247,88^\circ$).